

**« PARTIR EN LIVRE » 2024**

**« LIBURUAN JOAN » 2024**

**Gaia : « Kirolak eta jokoak »**

Kanboko Arnaga museoa, aisialdi zentroa, eta mediateka 2024ko « Liburuan joan » gazteriaren liburu bestarentzat elkartzen dira.

Bestaren kariatara, eleberri laburren idazketa lehiaketa bat antolatua da, 12 urtetik 14 urte arterainoko haurrentzat.

Lehiaketa honetan parte hartzea kitorik da.

« Kirolak eta jokoak » gaiari buruzko eleberri labur bat idaztera gomitatzen zaituztegu, frantsesez edo euskaraz.

Zer da eleberri labur bat ?

Eleberri laburra kontakizun labur bat da (eleberriaren aurka), gertakari ezberdin bat, bizi momentu bat. Oro har, garrantzi gutxiko pertsonaia kopuru bat aurkezten du, eta, naski, narrazio generokoa da.

Askotan erorketa harrigarri bat du.

« Polizia » eta « zientza fikzioa » motakoak onartzen ditugu.

**1. artikulua:**

Eleberri labur bakar bat onartuko da idazleka = pertsonaka, frantsesez edo euskaraz.

Titulu orrialde bat + 1 edo 2 orriaren aitzin (A4 formatuan).

Testua « Times New Roman »-n, letra-tipo neurria : 12.

Ez duzue ahantziko testu baten kalitateak gramatika-eraikuntza zuzenak, ortografia ona eta puntuazio apaindua eskatzen dituela: irakurlearen plazerarentzat ezinbesteko elementuak!

**2. artikulua:**

Aurkeztu lanak argitaragabea izan behar du, eta ez du beste literatur lehiaketa batean saririk irabazia izan behar.

Ale bukaeran, « jatorrizko egiaztatu lana, pertsonala, argitaragabea » idatzi behar duzue. Aginduak betetzen ez badira, lehiaketatik kanpora buruz eramaten du.

### **3. artikulua:**

Idazketa lehiaketa 2024ko otsailaren 10an abiatzen da.

Zure testua bidaltzeko azken epea **2024ko maiatzaren 25an da**; mezu elektronikoz bidaliko da [mediatheque@mairie-cambolesbains.fr](mailto:mediatheque@mairie-cambolesbains.fr) helbiderat.

Fitxategia « .pdf » edo « .doc » edo « .odt » formatuan izan daiteke. Zure mezuak eleberri laburraren titulua eta zure deitura helbideak argituko ditu (deitura, izena, helbidea osoa, telefonoa, sorteguna).

Lehiaketan izen ematea burasoen baimena (araudi honekin emana) ere bidaliko duzue.

### **4. artikulua:**

Lehiaketaren epaimahaia, idazlez, Herriko Etxeko, museoko, aisialdi zentroko eta mediatekako ordezkari osatua izanen da.

### **5. artikulua:**

Sari banaketa **2024ko ekainaren 22an** egingen da.

Sari banaketak parte hartzaile guztiak, epaimahaikideak eta mediatekako publikoa elkartuko ditu.

Eleberri sarituen zati batzuk irakurriak izanen dira, lagun arteko giro batean.

Epaimahaiak, sarituen baimenarekin, baimena ematen saritu eleberriak, parte-hartzaileen fitxategi numerikotik abiatuz, barak argitaratutako bilduma batean agerrarazteko..

Saridunek egile eskubideen ez eskatzea hitzematen dute.

### **6. artikulua:** araudiaren onarpena

Idazketa lehiaketa honetan parte hartzean, arau hauek argi eta garbiki onartzen dituzue. Xehetasun gehiagorentzat, Sylvie DUPON anderearekin harremanetan jar zaitezke 05.59.93.50.70 telefonoz edo e-meuz : [mediatheque@mairie-cambolesbains.fr](mailto:mediatheque@mairie-cambolesbains.fr).